

Hezkuntza «soka lepotik» jartzen ari zaie ikastolei Camposen ustez

«Ikastolek aurrera egingo dute nahiz eta PSOE kontra eduki»


Antonio Campos Ikastolen Elkartearen lehendakariak ukatu egin zuen atzo hamaika ikastola sare publikoan batu egingo direla. Camposek gogor kritikatu zituen Administrazioa ikastolekin erabiltzen ari den moduak, «lepotik soka jartzea» dena, bere esanetan.

G. A. / BILBO

«Ez dut uste sartuko direnik. Ez dut inolako notiziarik inor sartuko denik» esan zuen Elkartearen lehendakariak Jose Luis Avila Hezkuntza sailburuordeak aurreko astean egindako adierazpenei buruz. Sozialistak hamar bat ikastola sare publikoan sartuko zirela agertu zuen orduan.

Camposen hitzetan, «Administrazioa, momentu hauetan, ikastola hauei soka lepotik jartzen ari zaie. Ikastola hauek egoera larrian daude, batez ere ondare aldetik. Ez daukate gelarik edo gela txarrak daukate beraz gela berrien premia dute. Egoera honetan Administrazioak zera esan die: «Zuek gela berriak nahi badituzue nik bihar bertan egingo dizkizuet, baina horretarako sare publikoan sartu behar duzue».

Kinka larrian dauden ikastolak Bizkaiko Sestaoko Umeen



Antonio Campos Ikastolen Elkartearen lehendakaria.

JUAN CARLOS RUIZ

Etxea, Santurtziko Bihotz Gaztea edo Barakaldoko Alkartu ikastolak dira, besteak beste. Ikastola hauek udal lokaletan daude eta guztiak ikasturtea bukatu bezain pronto kaleratuko dituzte, udal horietan nagusi den PSE-PSOE alderdiko kideek erabaki dutenez.

«Batetik, ikastolak batuta badaude ikaragarri ondo etorriko zaie ikastolak zaititzen joatea. Une batean behar batzuk baldin badauzkazu, horiei erantzuteko

beste une batean emango ez zenuke zuten zerbait pausu eman ditzakezu» gaineratu zuen Elkartearen lehendakariak.

«AURRERA EGINGO DUGU» Ikastolek aurrera egingo dutela esan zuen Camposek: «Ikastolen historian horrelako gauzak hasiera hasieratik izan dira. Beraz, horrelako eraso bat dela eta kokilduta gelditu behar bagenu ez genuke inoiz aurrera egingo. Eta ikastolak indar han-

diz aurrera egin dute eta hementik aurrera ere, aurrera joango dira, nahiz PSOE kontra eduki».

Abendutik gaur egun arte, Fernando Buesa kontseilariarekin elkarrizketatzeko zain dagoen Ikastolen Elkarteak zenbait gutun idatzi ditu, horietako bat lehendakariari zuzendua, ikastolek pairatzen duten egoerari irtenbidea aurkitu asmoz. Era berean, beste zenbait ekintza ere martxan jartzeko asmotan daude ikastolak.

ETBren bitartekoen arrazionalizazioa «txalogarria» da Amatiñoren ustetan

G. A. / BILBO

«Nahiko da Miramongo bitarteko tekniko eta giza baliabideen arrazionalizazio edo kualifikazio hobea bat planteiatzea, zergatik izango ote den mamuak plazaratu daitezkeen» esan zuen atzo Luis

Alberto Aranberri ETBko zuzendariak udaberriko parrilaren aurkezpenean. «Pentsako sektore batentzat edozein aitzakia nahikoa da alde txarra bilatzeko», gehitu zuen Amatiñok.


«Edozein arrazoi dela medio, ETBk dituen bitarteko tekniko

eta giza baliabideen erabilera eta arrazionalizazioa txalogarriak direla», gehitu zuen. Txalogarritzat jo zuen, besteak beste, «ETBren kostua orduko Estatuko merkeenak izatea, langile bakoitzeko gehien ekoizten duen telebista autonomikoa izatea».

«Apiriletik aurrera Miramon programa propio ez eguneroko eta ez zuzenen produkzio gunea izango da. Orduan udan itxi ahal izango dugu», segitu zuen.

ETBren ikusentzulegoaren gorakada «nabaria» izan dela azpimarratu zuen Zarraoak. «ETBren ikusentzulegoa ikaragarri areagotu da urritik hona, % 40n, alegia eta otsailean ikusentzulegoaren % 25 lortu dugu. Egundakozko urtarrik eta otsailean baino ikusentzulego gehiago dugu, orduan telebista pribatuak hedatu gabe bazeuden ere».

Zarroaren esanetan, «ETBlean, ikusentzuleak umorea, kirolak eta haurrentzako programak eskatzen ditu eta horiek



Amatiño.

SIMAL

dira bere ezaugarriak. ETB2ean, berriz, herrialdetik ahalik eta hurbilen dagoen telebista bat egiten saiatu gara».

Amatiñok, bestalde, udaberriko programazioaren berrikuntzak aipatu zituen, 'Arin arin' trikitrixa programa, 'Beni eta Marini', 'Eskualdeak', 'Bizia', 'Claves del Misterio' eta abar.

LABURREAN

ALKOHOL eta droga kontsumoa loturik gazteen artean

Alkohola zein drogaren kontsumoa oso lotuta daude Euskal Autonomi Elkartearen gazteen artean, Eusko Jaurlaritzak plazaraturiko 'Narkohabitoa bigarren belaunaldian' liburuaren arabera. 18 eta 35 urte bitarteko gazteen % 24,6 dira bi produktuok batera kontsumitzen dituztenak. Ez bata ez bestea kontsumitzen ez dutenak, berriz, % 37,1 dira ●

MILAKA kaxa tabako atzemanak Aizoainen

Kontrabandoko 17.000 kaxa tabako gorri atzeman zituen atzo Goardia Zibilaren Drogaren aurkako Fiskal Taldeko kideek Aizoainen —Nafarroa—. Nafarroako matrikula zuen furgoneta batean zegoen tabakoa eta Altsasutik Iruñera doan errepidean topatu zuen goardia zibilek. Inor atxilotu ez bazuten ere, aktak ireki zituzten tabakoa zeramanari zigorra ezartzeko asmoz ●

HIRUREHUN eta hirurogei gramu heroina atzeman dute Etxebarrin

360 gramu heroina atzeman zituen Polizia Nazionalak ostiralean Etxebarrin —Bizkaia—. Hiru lagun ere atxilotu zituzten droga trafikatzear akusatuta eta epailearen esku utzi zituzten. Antonio J.C. eta Maria Dolores M.M. 41 urteko senar-emazteak eta Jose M.F. 23 urtekoak dira atxilotutakoak. Bilboko Alde Zaharra eta Cortes auzoko, eta Donostiako trafikari txikiak saltzen zioten droga Polizia Nazionalaren hitzetan ●

BOST atxilotu abusu sexual eta bortxaketagatik

Polizia Nazionalak hiru lagun atxilotu ditu Gasteizen Down sindromea zuen neskato bat bortxatzeagatik. Salaketaren arabera, zelai batera motoan eramane zuten eta han bortxatu. Bestalde, Ertzaintzak 17 urteko marokkoar bat atxilotu du Gasteizen 8 eta 9 urte zituzten bi haurri abusu sexualak egiteagatik ●



JON
ZUZUARREGI
LIZARAZU

Adio izar ederra
Adio izarra
Zu zara aingerua
Munduan bakarra
Aingeruarekin, aingeruarekin
Zaitut konparatzen
Zenbat maite zaitudan
Ez duzu pentsatzen

HONDARRIBIKO IKASTOLA
1992ko martxoak 23